ZIUR FUNDAZIOAREN EGUNGO ERP EGITURA CLOUD INGURUNE BATERA MIGRATZEKO BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ZIUR2022029 ESPE.)

1. AURREKARIAK

Gaur egun, ZIUR Fundazioaren egoitzak CTI Soft enpresaren ERP SPYRO irtenbide bat du, Fundazioaren CPD azpiegituran ostatatua. Fundazioaren kontabilitatearen, fakturazioaren, kobrantza eta ordainketen eta nominen kudeaketa arloko lanak egiteko erabiltzen da software hori.

Fisikoki, bi “host” birtual daude zerbitzu hori emateko: batetik, Linux sistema eragilea, Oracle datu-basean ostatatua; eta, bestetik, Windows sistema eragilea. Hain zuzen, hor dago ostatatuta EFP softwarea eta harekin lotutako lizentzia. Azpiegitura hori 2019ko urrian erosi zen.

Fundazioak behar dituen funtzionalitate berrien eraginez, eta kontuan izanda beharrezkoa dela egungo ERP irtenbidea erabiltzeko zerbitzuarekin lotutako hardware azpiegituraren dimentsionamendua handitzea, beharrezkoa da azpiegitura hori hodei-zerbitzu batera migratzea, beharrezko funtzionalitateak eduki ahal izateko eta lotutako hardware baliabideak areagotzeko.

2. KONTRATUAREN XEDEA

ZIUR Fundazioaren ERP irtenbidea migratu eta mantentzeko kontratua arautuko duten baldintzak zehaztea da Baldintza Tekniko Partikularren Agiri honen xedea.

3. KONTRATUKO PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

3.1. Irtenbideak behar dituen osagaiak

Hornikuntza egin ahal izateko, honako osagai hauek izen behar ditu irtenbideak:

Ekipamenduaren deskribapena	Unitateak	Lizentziaren iraupena (urteak)
ORA COMPUTE CLOUD SERVICE OCPU. Hauek osatzen dute: • VM STANDARD 2.1 • Intel Xeon Processor 2.0 GHz Platinum 8167M • 1 OCPU (2 nukleo eta 15 GB RAM)	2	2

OHARRA: VPN behar du komunikazioa segurua izateko. CLOUD baldintzak hemen daude deskribatuta: www.oracle.com/us/corporate/contracts/cloud-host-deliverypolicies-es-esp-3126147.pdf		
ORA COMPUTE CLOUD BLOCK VOLUME 1TB	1	2
ORACLE LOAD BALANCER 100 Mbp Karga-kulunkagailua: - 100 Mbp - Prezioa instantziako / URTEKO - Erabilera 24/7/365	1	2
ORA OBJECT STORAGE BACKUP 1TB	1	2
Windows Srvr 2019 STD ORA CLD Microsoft Windows Server sistema eragilearen 2019ko lizentzia Standard Edition 2P, gaztelania - 0 CAL, 2 prozesadore, 2 instantzia birtualizatu, Windows Server-en funtzionalitate guztiekin – Lizentzia aktiboa - Oracle Cloud zerbitzarirako bakarrik	1	2

Egungo irtenbidea hodei-azpiegitura berrian martxan jartzeko beharrezkoak diren instalazio, migrazio eta konfigurazio zerbitzuak ere jaso beharko dira, bai eta segurtasun-kopia berriak ere. Halaber, migrazio-proiektuaren barruan, azpiegitura berriak ondo funtzionatzen duela egiaztatzeko beharrezkoak diren probak zehaztu beharko dira.

ASINOM

- “Cloud” ingurunea konfiguratu

- BBDD 19C zerbitzaria instalatu eta konfiguratu

- Spyro zerbitzaria instalatu eta konfiguratu

ASINOM PROGRAMA INSTALATU ETA KONFIGURATZEA

- Aurretiazko segurtasun-kopia

- Instalazio-fitxategiak, liburutegiak eta exekutagarria transferitu.

- Datuak Asinom-en karpetatik transferitu, eta ondoren, ondo funtzionatzen duela egiaztatu.

3.2. Mantentze-zerbitzuak

Osagaien fabrikatzaileak eskainitakoaz gain eskaintzen den mantentze-zerbitzu integralak 2 urteko iraupena izango du gehienez. Zerbitzu horren bidez, 8x5xNBDko arreta-zerbitzua eskaini beharko da, eta 1 eta 24 ordu arteko erantzun-denbora, gehienez, hornitutako produktuekin izandako intzidentzia jakinarazten denetik kontatzen hasita, beti ere, intzidentziaren larritasuna kontuan izanda.

Horretarako, enpresa esleipendunak telefonoak, helbide elektronikoak, intzidentziak kudeatzeko aplikazioa edo zerbitzu hori betetzeko bitartekoak eman behar dizkio ZIUR Fundazioari.

Mantentze-zerbitzuaren barruan, honako zerbitzu hauek hartu behar dira kontuan, kontratuaren mantentze-zerbitzuak iraungo duen bi urteetarako:

- BACKUP SILVER ZERBITZUA (DATUEN eguneroko inkrementala astebetez, astekoa hilabetez, hilekoa urtebetez eta urtekoa 5 urtez).
- “Cloud” zerbitzariaren urteko mantentze-lanak eta ikuskaritza, egin beharreko ekintzen aholkularitzarekin.
- Datu-basearen eta Middleware Oracle-ren mantentze-lanak.
- Oracle datu-basearen bertsioen eguneraketak.
- Oracle datu-basearen mantentze-lanetarako eskulana.
- ORACLE ENTERPRISE MANAGER CLOUD CONTROL monitorizazioa DBrako.

Laguntza-zerbitzuak erantzun-denbora egokiak bermatu behar ditu teknikariek *in situ* jardun behar dutenerako. Zehazki, muga hauek ezartzen dira:

- ZIUR Fundazioaren esku jakinarazpen eta intzidentzien prozedura bat jartzea (telefono bidezkoa eta posta elektroniko bidezkoa).
- Zerbitzu horren barruan dago teknikari espezialistak intzidentzia konpontzeko *on-site* emandako laguntza (ekipoak ordezkatzea ere bai), zehaztutako estalduraren eta *Service Level Agreement* (*SLA*) hitzarmenaren arabera.
- 8x5xNBD prestasun ordutegia larritasun maila guztietarako.

Konpontzeko denbora, gehienez:

- 1. mailako larritasuna <= 1 ordu
- 2. mailako larritasuna <= 4 ordu
- 3. mailako larritasuna <= 16 ordu

- 4. mailako larritasuna <= 24 ordu

Larritasunaren definizioak

- 1. mailako larritasuna – Zerbitzua erorarazi duen intzidentzia larria – Produktua erortzeko edo eteteko arriskuan dago.
- 2. mailako larritasuna – zerbitzua arriskuan jartzen duen larritasun ertaineko intzidentzia – Intzidentziak arrisku operazionalak eragingo ditu berehala.
- 3. mailako larritasuna – errendimendu baxua eragiten duen intzidentzia baxua – Intzidentziak ez die eragiten inolako arazo operazionalik erabiltzaileei.
- 4. mailako larritasuna – Kontsulta mailako intzidentzia – Kritikoak ez diren edo intzidentziak konfiguratzeko edo konpontzeko kontsultak.

Ulertzen da mantentze-zerbitzuaren barruan daudela kontratua indarrean dagoen bitartean izandako edozein gorabehera edo zaurgarritasun konpontzeko ekipoetan egin beharreko aldaketak.

Halaber, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du fabrikatzailearen softwarea eguneratzeko, ekipoak erabat eguneratuta egon daitezen eta ezin hobe funtziona dezaten.

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)

Digitalki sinatuta norengandik: 72724351F KOLDOBIKA PECIÑA (R: G75203067)
Data: 2022.09.26 15:44:33 +02'00'

Koldo Peciña Txintxurreta